

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Afrikar polit... polit nintzela baina larrua beltz

Asteotan herrialde aberatsetako milioika gizon eta emakume zuri eguzki galdatan etzanda saiatuko dira larruazala belzten. Aldi berean, munduko milioika emakume beltzarenak edozein krema edo ukenduz igurzten dute larrua, itxura argitu eta aberatsen estandarera hurbiltzeko.

PARIS, GAR DU NORD GELTOKIA, arratsaldeko bostetan. 35-40 urteko hiru emakume gazte sartu dira metroan. Haietako batek, liho beixeko soinekoz jantziak, lagunei diotse abuztuan Brazzavillera eta Kinshasara joango dela eta dagoeneko hasita dagoela azala zuritzeko tratamenduarekin. Ezagutzen du horretarako produktuak saltzen duen *boutique*. Ez du errepikatu nahi 2007an egin zuen hankasartzea, oporretan joatea berezko larruazal beltzarekin. Marka garestizko arropak zeramatzan arren soinean, inork ez baitzion arretarik jarri. Are okerrago, haren aitak berak ere ez zion sinetsi Paristik zetorrek: jakina omen da paristarrak kolore argia dutela.

Pasarte horrekin abiatu du Bedel Baouna kazetariak “S’*é*claircir la peau a tout prix!” (Larruazala argitu kosta ahala kosta) artikulua, *Afrik.com* gunean. Mundu osoan dago joera, Mendebaldeko zuriaren estandar estetikoetara hurbildu nahi duten jende beltzaren artean, larruazala zuriagotzeko. Baina *Afrik.com* frankofonoak kronikan Frantziako eta Afrikako belzten arteko kasu ugari aztertu ditu.

“Zuritzeko produktuen saltzaileak –dio Bedel Baounak– aberasten ari dira, erabat legez kanpo arren denen jakinaren gainean Fran-

tzian eta legalitate barruan Afrikan. Senegalen, Kongon, Kamerunen, Malin eta bestetan, saltzaileok horretara bultzatzen dituzte gizartean nabarmentzea lortzen ez duten emakume eta gizonezkoak”.

Ez, Michael Jackson ez da izan belzten artean salbuespena, zuritzeko obsesioa –bestelako patologiarekin batekin nahastuta– azken muturre-raino eraman duen adibide bitxia baizik. Gainerakoan, milioika jende ari dira egunero larruazala argitzeko pomadak kontsumitzen. Batez ere emakumeak, baina gizonak ere gero eta gehiago.

Produktu eta terapia zurigarri guztioi Senegalen wolof hizkuntzazko *kehessal* izena ematen zaie. Hizkuntza bakoitzak dauka berea, hain dago zabaldua larruazalari pigmentu beltzarana galarazteko joera. Afrikan saltzen diren kosmetikoen %20 omen dago lotuta tratamendu horiekin, eta antza denez Indian askoz larriagoa da oraindik: han kosmetiko salmentaren erdia larruazala zuritzeko ukendu eta abarrek osatzen dute.

Usatuenak Hidrokinonak dira. Berez, produktuok argazkien erbelatzeko erabili izan dira, hortik atera kontuak. Frantzian debekatuta daude, baina errez aurki daitezke, antza, denda ezagunetan ere eta aldiz Afrikan erabat libre saltzen

Argazkikoa Claudia Wambululu da, jatorria Kongo eta Ugandan izanagatik Suitzan bizi den top modela; 2007an Miss Switzerland lehiaketan bigarren geratu zen. Larruazal beltzaren aldarria egiten dutenek antzeko emakume arrakastatsuak aipatzen dituzte, eta batik bat Amerikako Estatu Batuetako afroamerikarrek landu duten harrotasuna, gailurrera iritsi diren Barack Obamaren eta emazte Nancyren kolorea. Baina munduko milioika gizon eta emakume beltzarenak jarraitzen dute larruazala argitzeko ahaleginetan, harremanetan arrakasta erraztuko dielakoan. Europa eta Afrikako jende hiritartu askok kontsumitzen dituzte produktu zuritzaileak. Indiako emakume askok beharrezkoa uste du soina zuritzea ezkongia aurkitzeko itxaropenik edukitzekotan.

dira. European errezoago dira aurkitzen kortisona daramaten kremak, larruazaleko gaixotasunak artatzeko errezetatzen direnak baina dermisa zuritu ere egiten dutenez emakume askok baliatzen dituzte. Diruz estuago dabiltzan batzuek libixa igurztaraino iritsi daitezke.

Ukendu eta pomadez gain, injekzio bidez ere hartzen dituzte kortikoideak itxura zuritzeko presa duten askok.

Emakume beltz hiritartu gehienak

Urteotan medikuak gero eta sarriago aurkitzen dira larruazalari egindako eraso bortitzon kalte larrien aurrean. Azalean eragindako orbain eta bestelako arrasto sakonetatik eta ekzematik abiatu eta begietako glaukoma edo diabetesa edo hipertentsioa arteraino zerranda luzean.

*Afrik.com*eko artikulua muturreko kasu bat aipatu du, berrikitan Frantzian 47 urterekin hil zen emakume kongotarrarena: familiakoek elkarri kolpeka egin zuten borroka hileta egunean, sorginkeriaz hil zutela eta beste... egia ximpleagoa zera zenean, alegia emakume gajoak erabili zituen kortisona, merkuriiodun ukendu eta abarren ondorioz azaleko kantzerra jasan zuela.

Gutxitan iristen dira kalteak hain urrun, baina larruazala hondatua duten emakume beltzena dagoene-



koz epidemia omen da, Afrikan eta baita Europan ere. Telebistetan maiz aipatzen da gaia, erreportaje mamitsuak ikus daitezke Interneten bai idatzizkoak eta bai irudizkoak. Azkenean, agintariak ere hasi dira arazoa haintzat hartzen. Baina nola ipini hesiak jendeek hain sakon sentitzen duten behar bati?

Mundu osoan zurtasuna ederra da. Larruazal argia lotzen zaio diruari, aginteari, gizarte maila onari. Jatorriz jende zuriz osatutako gurea lako gizarteetan, diote antzina larruazal beltzak soroko lana salatzen zuela, ugazabaren andrea askoz zuriagoa zelako. “Maitiak galdegin zautan” kantan nabarmen ageri denez: “Polit... polit nintzela baina / larrua beltz”.

Indian, berriz, goi mailako jendeak zuriagoak izan dira beti, inbasore arioen oinordekoak zirenez, antzinako aborigen txiroak baino.

Afrikarren kasuan, *Les belles noires* blogak zuritzearen inguruko ohar eta informazio oso onak eskaintzeaz gain, zuritu nahia lotu du oinarri historiko, soziologiko eta psikologikoekin. Alde batetik, oso aspalditik sekulako garrantzia eduki dute kolonizazioak eta esklabismoak beltz ororen gain, jende beltzarenaren esterotipoak (sudur motza, ezpain lodiak, kolore txit beltza...) giza maila apalagoarekin lotuz.

Azken urteotan komunikabideek sakondu egin dituzte sentsasio horiek, edertasunaren eredutzat kolore argiko emakumeak edo

gehienik mestizoak bihurtuz. Horrek ekarri omen du gizonen emakume argiagori begi argiagor erreparatzea, emakumearen klaseak hura bereganatu duen gizonarena nabarmenduko duelakoan.

Les belles noires blogak esplikatzan duenez, tratamendu zuritzaileok, aurrez aipatu diren kalteez gain, beste arrisku hau ere badakarte: ukendu edo injekzioak bapatean uzten badira, larruazala hasieran zena baino are beltzagoa geratzen dela eta gainera klase askotako orbain eta markak azaltzen direla. Batetik, ezin aski zuritu, eta bestetik beltz izatea berriro onartzen hasitakoan, ezin atera gurril zorotik.

Hori gaintzeko bide bat beltzaren edertasun estetikoaren aldarrikapena da. Adibidez, hala egiten du, eta arrakastaz, Khadi Sy Bizet doktoreak *Le Livre de la beauté noire* (Edertasun beltzaren liburua) ezaugarrekin.

Larruazala zuritzeko teknikez ez baina kolonizazioaz geroztik Zuria- ren eta Beltzaren arteko harremanez idatzi zuen Frantz Fanonek *Peau noire, masques blancs* 1952an. Aljeriaren askatasunaren alde borrokatu zen psikiatra honek kolonialismoaren mekanismo psikologikoak aztertu zituen, beltzaren aldetik: “Beltzak zuria bezalakoa izan nahi du. Destinu bakarra dauka, destinu zuria”. Eguzkipetik babestuta zuriok ere irakurtzea on genukeen liburu zahar berria. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira